



Ref.:

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

INSTRUKZIO ZK. 5/2025 (LB 4 / E 3)

GAIA: OBRA ETA ZERBITZUETAKO IBILGAILU BEREZIEI ETA GARRAIO BEREZIAREN ARAUBIDEKO IBILGAILUEI ZIRKULAZIO BAIMEN OSAGARRIAK EMATEKO IRIZPIDEAK.

I.- XEDEA

Instrukzio honen xedea da obra eta zerbitzuetako ibilgailu bereziei (Aurrerantzean IB) eta Garraio Bereziaren Araubideko ibilgailuei (aurrerantzean GABAI) zirkulazio-baimen osagarriak (aurrerantzean ZBO) emateko irizpideak ezartzea.

Araudi aplikagarrian ezarritako masa eta neurriak gainditzen dituzten IBek eta GABAIek errepidez zirkulatu ahal izateko ZBO bat behar dute. Baimen hori gehigarri bat izango da zirkulazioan jartzean emandako zirkulazio-baimen arruntaren gainean.

ZBOen araudia abenduaren 23ko 2822/1998 EDren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren (aurrerantzean IEO) 14. artikuluan eta IX. eranskinean jasota dago eta azaroaren 21eko 1428/2003 EDren bidez onartutako Zirkulazio Erregelamendu Orokorren (aurrerantzean ZEO) 13. artikuluan eta III. eranskinean.

Baimen horiek ematen zaizkie beren ezaugarri teknikoengatik edo daramaten karga banaezina delako araudian ezarritako gehieneko masak eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuei. Karga banaezina den kasuan, ibilgailu horiek lege dagokien garraio-baimena dutela egiaztatu behar da aurretik.

Karga banaezina dela eta, garraiatzen den kargak IEOaren 14. artikuluan eta IX. eranskineko 1. ataleko 1.15 puntuan jasotzen den banaezintasunaren baldintza bete behar du. Karga banaezina edo elementuen talde banaezina izan behar du. Dena den, bi salbuespen daude, Instrukzio honen I. eranskinean agertzen direnak.

ZBOak zirkulazio-kopuru jakin baterako edo epe jakin baterako emango dira, bidearen titularrak txosten loteslea eman ondoren. Era berean, ZBOek zirkulazio-baldintzak ezarriko dituzte eta horiek bat etorriko dira ZEOren III. eranskineko arau orokorrekin, baina horien gainetik egongo dira baimenean bertan berariaz ezarritakoak

Hala ere, garraioa arau ezarritako mugak betetzen dituen beste ibilgailu batekin egin ahal bada, ez da ZBORik emango.

Prozeduraren interesdunek Administrazioarekin elektronikoki erlazionatzeko daukaten eskubidea eta betebeharra betetzeko, espedienteen izapidetze elektronikoa urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, baita hori garatzeko arauak ere.



II.- ZBO KATEGORIAK

Taldeak, abian duen hurrenkeran, arauzko mugen gainetik dituen neurriak eta masak kontuan hartuta, obra eta zerbitzuetako IBetarako eta GABAletarako ZBO mota hauek ezarri dira:

- *Obra eta zerbitzuetako IBak eta GABAak*

IEO neurria (IX. eranskina)	Generikoak	Bereziak	Salbuespenezkoak
LUZERA (L)	$\leq 20,55$ m	≤ 40 m	> 40 m
ZABALERA (a)	$\leq 3,00$ m	≤ 5 m	> 5 m
ALTUERA (h)	$\leq 4,5$ m	$\leq 4,7$	$> 4,7$
MASA (M)	≤ 45 T	≤ 110 T	> 110 Tn
MARDATZ	$\leq$ IX. eranskina (ibilgailu eta ardatz motaren arabera)	$\leq$ IAT	$\leq$ IAT

III.- ZBOAK EMATEKO BETEKIZUNAK

ZBO-eskabidea izapidetzeko, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dira, hauen inguruan:

- Interesduna: Nor jo daitekeen baimenaren titulartzat.
- Ibilgailuak: Zein ibilgailuk jaso dezaketen baimena.
- Ibilgailu-taldea, abian duen hurrenkeran: Zer ezaugarri izan behar dituen baimentzeko dagoen ibilgailu-taldeak abian duen hurrenkeran.
- Karga: Zer ezaugarri izan behar dituen baimenaren babespean egongo den garraioak daraman kargak.
- Ibilbidea: Zer ezaugarri izan behar dituzten baimentzeko dauden ibilbideek.

I. eranskinean betekizun horietako bakoitzaren zehaztasunak azaltzen dira.

IV.- IBILGAILUEN JAKINARAZPENA ETA BAIMEN ESKAERA

Aurkezteko erabiliko den kanala edozein dela ere, ZBO berri bat eskatzeko inprimakia edo, hala badagokio, indarrean dagoen ZBO bat aldatzeko inprimakia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa baino ez daude eskuragarri, lotura hauetan: www.trafikoa.euskadi.eus edo www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/.

Eskabidea betetzean, interesdunek jarri behar dituzte, besteak beste, eskabidearen barruan egotea nahi duten ibilgailu guztiak (ibilgailu motordunak, atoiak, erdiatoiak, ibilgailu modularrak eta ibilgailu bereziak eskaera-motaren arabera).

Eskaera egiteko aplikazio berriak eskatzaileari ibilgailuen erroldan dauden eta aurretik diseinatutako taldearen ezaugarriak dituzten ibilgailuak eskainiko dizkio, baita erroldan ez dauden ibilgailuei alta emateko aukera ere.

Eskaera-inprimakiaren bidez, eskatzaileak, eskatzen zaizkion datuak bete ahala, bere eskabidearen tramitazioaren bideragarritasunari buruzko informazioa jasoko du. Eskabideari baimena emateko beharrezkoak diren kontrol edo balidazio batzuk aplikatuko zaizkio eta horren ondorioa izango da informazio hori.

II. eranskinean baimen-eskabideari buruzko xehetasunak eta kasu bakoitzean aurkeztu beharreko dokumentazioa agertzen dira.

V.- ELEKTRONIKOKI IZAPIDETZEA

Izapidetze elektronikoa derrigorrezkoa edo borondatezkoa izan daiteke, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14. artikuluko 1 eta 2 ataletan ezarritakoaren arabera: derrigorrezkoa pertsona juridikoentzat eta borondatezkoa pertsona fisikoentzat.

Hala ere, pertsona fisikoek zein juridikoek, eta beren ordezkariak, ZBOak izapidetzeko bide elektronikoa erabili behar dute nahitaez, hala ezartzen duelako ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuak (*herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa*) 15.1 artikuluko a) eta f) ataletan.

Arau horrek ezartzen du enpresaburu indibidualek edo autonomoek edo beren ordezkariak Administrazioarekin harremanetan jartzeko nahitaez bitarteko elektronikoa erabili behar dituztela, lanbide-jardueran egiten dituzten izapide eta jarduketetarako.

III eta IV. eranskinetan zehatz-mehatz azaltzen da nola izapidetu eskabide berriak eta indarrean dagoen ZBO bat aldatzeko eskabideak.

VI.- BAIMENAREN INDARRALDIA

ZBOen indarraldia honen arabera izaten da: eskabidean ibilbide zehatz bat dagoen ala ez.

- Ibilbide zehatzik ez badago 4 urte.
- Ibilbide definitua edo zehatza badago urte 1.

Indarraldi-epe horiek ofizioz aplikatuko dira, salbu eta bideko titularrek kasu zehatz baterako egindako txostenetako proposamen arrazoitua kontuan hartuta, edo interesdunak eskatuta, indarraldi-epe laburrago bat ezartzea (2, 4 edo 6 hilabete) erabakitzen bada.

Baimena indarrean dagoen bitartean, titularrak erabili ahal izango du nahi beste bidaietarako. Salbuespenez, baimena bidaia-kopuru mugatu baterako eman daiteke, baimendutako ibilbidearen barruko bideen berezko ezaugarriengatik (txostenean behar bezala jasota).

ZBOa indarrean dagoen bitartean, ezin bada baimendutako ibilbidetik zirkulatu, bidearen titularra obrak egiten dabilelako edo Trafiko Zuzendaritzatik kanpoko beste edozein kausarengatik, ZBO horren titularrak beste baimen bat izapidetu behar du, ordezkoko ibilbide bat izango duena, gutxienez, zirkulaziorako erabili ezin den ibilbidearen bide-tartea ordeztuko. Eskabide berri hori Instrukzio honen III. eranskinean ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

VI.- ZBOAREKIN ZIRKULATZEA ETA BALDINTZAK

Espedientea izapidetzen amaitu ostean, baimentzeko ebazpena eman behar bazaio, ZBOak ezarriko ditu kasuan kasuko zirkulazio-baldintzak; izan ere, baimenean ezartzen diren zirkulazio-baldintzak ZEOren arauetara gailentzen zaizkie, beti ere bideko titularrek txostenetan behar bezala arrazoitutako zirkulazio-murrizketak eta pasabide-erreserbak kontuan hartuta.

Zirkulazio-, abisu- eta laguntza-arauez gain, baimenaren balioa baldintzatzen duten ohar orokorrak ere jasoko dira.

V. eta VI. eranskinetan agertzen dira ZBO baten babesean zirkulatzen dutenen zirkulazio- eta laguntza-zehaztasunak.

VII.- ZIRKULAZIOA ETA GEOLOKALIZAZIOA

ZBO guztietan agertu behar da, zirkulazio-baldintzen artean, bidaia alde aurretik abisatu behar dela, bidaiaren hasiera eta amaiera jakinarazi behar direla eta bidaiaren zehar geolokalizazioa bidali behar dela ere. Horretarako, Trafiko Zuzendaritzak eskaintzen duen doako aplikazioa erabiliko da. Bidaia-hasieraren jakinarazpena taldeak abian duen hurrenkeran martxan jarri aurretiko betekizun nahitaezkoa izango da.

Jatorri batetik helmuga batera eta talde batekin (abian duen hurrenkeran) egingo den bidaia bakoitzean jakinarazpen bat egin behar da. Dena den, jakinarazpen hori ez da inola ere ZBO baliadun baten baimenaren ordezkaria izaten eta ez ditu ZBO horretan jasotako aginduak aldatzen. Hala ere, interesdunak jatorri eta helmuga bera dituzten hainbat bidaia aldi berean egin behar baditu, nahikoa izango da hasiera-jakinarazpenean bidaia horiek egingo dituzten ibilgailu guztiak adieraztea.

VII. eranskinean zirkulazioari eta geolokalizazioari buruzko zehetasun guztiak agertzen dira.

VII.- DATUEN BABESA

Eskabideko datu pertsonalak *“Zirkulazioaren gainean eragin berezia daukaten jardueren baimenak”* izeneko tratamendu-jardueran sartuko eta tratatuko dira. Horren arduraduna Trafiko Zuzendaritza da eta alta emanda dago Tratamendu Jardueren Erregistroan. Tratamendu horri datu pertsonalen babeseko araudia aplikatzen zaio (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa).

VII.- INDARREAN SARTZEA

Instrukzio hau eta bere eranskinak zirkulazio-baimen osagarriak izapidetzeko 2025ko martxoaren 17an aplikatzen hasiko dira eta 5/2018 instrukzioa indargabetuta geratuko da.

Nekazaritzako IBei eta haien taldeei ZBOak emateko, maiatzaren 10eko 7/2016 Instrukzioan ezarritako irizpideei jarraituko zaie.

Trafikoko zuzendaria
Estibaliz Olabarri González

ERANSKINAK

- [I. eranskina: ZBOa emateko betekizunak](#)
- II. eranskina: Eskabidea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa
- III. eranskina: ZBOak emateko prozedura
- IV: eranskina: ZBOa aldatzea.
- V. eranskina: ZBOarekin zirkulatzeko baldintzak.
- VI: eranskina: Laguntzak: motak, parametroak eta abisuak.
- VII: Geolokalizazioa

I. ERANSKINA: ZBOA EMATEKO BETEKIZUNAK

a. Interesduna: ZBOaren titularra

Zirkulazio-baimen osagarria nork eskatzen duen edo norentzat eskatzen den hori da titularra, pertsona fisiko edo juridiko bat (enpresa), eta hori izango da ZBOaren arduraduna.

- ❖ GABAIetarako ZBOaren titularra garraio-enpresako baimenaren titularra da, ZBO-eskabidean sartuta dauden ibilgailu motordun guztiak bere izenarekin lotuta dituen; edo garraio-baimena behar ez duten garraio pribatuak badira, zirkulazio-baimenaren titularra da.
 - Atzerritarren kasuan, Batasuneko garraio-lizentziaren titularra izango da edo Europar Batasuneko kideak ez diren herrialdeetako ibilgailuetarako horren baliokidea den dokumentuaren titularra.
- ❖ Obra eta zerbitzuetako IBetarako ZBOaren titularra eskabidean sartuta dagoen ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren titularra izango da edo, ibilgailu motordunaren jabea modu profesionalean gidaririk gabeko ibilgailuak errentan ematen dituen enpresa bat bada, errentamendu-kontratuan errentari gisa agertzen den pertsona
 - Azken kasu horretan, eskabidearekin batera errentamendu-kontratua ere aurkeztu behar da, baldin eta Ibilgailuen Erregistroan inskribatuta ez badago edo ibilgailuak atzerriko matrikula badauka.

b. Ibilgailuak

Eskabidean sartzen diren ibilgailuek zirkulatzeko egokiak izan behar dute eta, beraz, matrikulatuta egon behar dute.

Aldi baterako matrikula izanez gero, gerta daiteke ibilgailuak ZBO bat behar izatea, aldi baterako baimenean jasota dagoen zerbitzua egiteko.

Eskabidean gehienez ere sar daitekeen ibilgailu-kopurua hau da:

	Ibilgailu motordunak	Atoiak Erdi-atoiak
Modulurik gabeko GABAIa	Gehienez 25 ¹	Gehienez 25 ¹⁻²
Moduludun GABAIa matrikula 1	Gehienez 25 ¹	Gehienez 25 ¹⁻²
Moduludun GABAIa hainbat matrikula	Gehienez 25 ¹	Gehienez 25 konposizio 2-3
Obra edo zerbitzuetako IBak	1	

¹ ibilgailuek ardatz-lerro kopuru bera izan behar dute eta ibilgailu-motari, ardatzari, ardatz-lerroari eta gurpilei dagokienez ere berdinak.

² garraiatuko den kargarekin bateragarriak.

³ fabrikatzaile bera izan behar dute eta fabrikatzaileak emandako bateragarritasun-ziurtagiria aurkeztu behar da.

ZBO-eskabideetan ardatz-motak ondoan dauden ardatz-lerroen arteko distantziaren arabera sailkatzen dira, honela:

- ardatz sinplea, distantzia 1,80 metrokoa edo handiago bada ($d \geq 1,80$).
- tandem-ardatza, bi ardatz-lerro "bogie" berari lotuta eta ardatzen arteko distantzia 1,80 m baino txikiagoa da ($d < 1,80$).
- tridem ardatza, hiru ardatz-lerro "bogie" berari lotuta eta haien arteko distantzia 1,80 m baino txikiagoa da ($d < 1,80$).
- n ardatz, lau ardatz-lerro edo gehiago "bogie" berari lotuta, ezaugarri berekoak eta distantzia 1,80 m baino txikiagoa da ($d < 1,80$).

Bogie berekoak direla ulertuko da ardatzen arteko distantzia 1,8 metrokoa baino txikiagoa bada eta ardatz horien ezaugarri teknikoak homogeenak direnean (hauek berdinak: ardatzeko TOGM, ardatzeko gurgil-kopurua, motrizitatea, etab.) Konbentzioz, bogie bereko ardatz-taldeetan ardatzeko kargak berdinak izango dira.

Baimena jasotzeko, ibilgailuek ardatzeko pisuari dagozkion betekizun teknikoak bete behar dituzte (TOGM/ardatz) eta, printzipioz, EAEko bideetako titularrek ardatz-lerroaren tipologiaren, ardatzeko gurgilen edo esekidura-motaren arabera ezarritako mugak gainditzen ez badituzte.

c. Taldeak abian duen hurrenkera

Eskabidean proposatzen den talde motak, abian duen hurrenkeran, IEOn ezarritako gehieneko masa eta neurriak gainditu behar ditu garraiatzen duen karga banaezina delako edota horrela eraikita dagoelako.

Talde baterako eskabidea egitean, talde horrek abian duen hurrenkera (GABAIen kasuan aurkezten den krokisarekin bat etorri behar dena) definitzeko jarraibideak eskabidean sartuta dauden ibilgailuen neurri, masa eta motor-ahalmen okerrenen arabera izango dira.

Ondorio horietarako, ulertuko da ezaugarri okerrenak hauek direla:

- Luzera: baimen-eskabideko ibilgailuekin osatu daitekeen luzerarik handiena, karga barne. Karga atzetik ateratzen bada, hori kontuan hartuta izan dezakeen gehieneko luzera jarri beharko da.
- Zabalera: baimen-eskabideko ibilgailuekin osatu daitekeen zabalerarik handiena, garraiatzen den karga kontuan hartuta.
- Altuera: baimen-eskabideko ibilgailuekin eta garraiatzen den kargarekin taldeak izan dezakeen altuerarik handiena.
- ITTOGM: baimentzeko dauden ibilgailu motordunek dituzten edukieren artetik txikiena jarriko da.
- Ardatzeko karga: kargaren pisua zein ibilgailu astunenetako tarak kontuan hartuta.

Karga "etxebizitza modulua" edo "feria eta ikuskizunetarako makinaria" bada, ibilgailu zurrun batez eta atoi batez osatutako errepide-tren batean edo ibilgailu artikulatu batean garraiatuko da, eta bakarrik ZBO generikoa edo berezia eman ahal zaio.

Errepide-trenak elementu-talde banaezinak garraiatzeko baino ez dira egokitzen joko eta, hortaz, ezin izango dituzte IEoren IX. eranskinean jasotzen diren gehieneko masa-balioak gainditu.

Dena den, errepide-trena kargarik gabeko ibilgailu zurrin batez eta salgaiak garraiatzeko ez den atoiaren eramateko zerbitzu-makina batez osatuta badago, baimena izan dezake baldin eta 18,75 m-ko luzera gainditzeko bada.

Hala ere, garraioa arazuz ezarritako mugak eta neurriak betetzen dituen beste ibilgailu batekin egin ahal bada, ez da ZBOrik emango, salbu eta :

- Neurri bat bakarrik gainditzeko bada eta arazuko mugak errespetatzen dituztelako ZBOrik behar ez duten beste ibilgailu batzuekin garraioa ezin dela egin justifikatzen bada.
- Kargaren neurriak eta banaiezintasuna direla eta, ez badago karga inolako ibilgailu motatan garraiatzea IEoren IX. eranskinean agertzen diren gehieneko mugak errespetatuz.

d. Karga

Garraiatzen den kargak banaiezintasunaren baldintza bete behar du, IEoren 14. artikuluan eta IX. eranskineko 1. ataleko 1.15 puntuan jasotzen dena. Kargak banaezina edo elementuz osatutako talde banaezina izan behar du.

Karga banaezina: errepidez garraiatzeko, zati bitan edo gehiagotan banatu ezin dena beharrezkoak ez diren kostuak edo kalte-arriskuak sortu gabe eta, dauzkan neurriengatik edo masagatik, ibilgailu motordun, atoi, errepide-tren edo ibilgailu artikulatu batean ezin eraman daitekeena baimendutako gehieneko masa, neurriak eta ardatzeko karga guztiz errespetatuta.

Elementuz osatutako talde banaezina: talde hori osatzen duten elementuak izaera berekoak dira, helburu bera dute eta neurri berdinak edo desberdinak izan ditzakete; eta taldeak, abian daukan hurrenkeran, elementu horietako handienarengatik, erregelamenduz ezarritako gehieneko neurrietako bat edo bi gainditzeko dute.

Elementu handienak gainditzeko duen/dituen neurri hori edo horiek kontuan hartuta (luzera, altuera edo zabalera) emango da ZBOa eta inola ere ezin izango dira gainditu eskatutako talde motarako (abian duen hurrenkeran) ezarritako gehieneko masak.

Talde banaezineko elementu handienak pieza bakarra izan behar du, zati bitan edo gehiagotan banatu ezin dena beharrezkoak ez diren kostuak edo kalte-arriskuak sortu gabe. Gainera, garraiatzean ZBOa ematea eragin duen elementu handi horrek egon behar du edo horren ezaugarri berberak dituen beste elementu batekin.

Adibidez: metalezko profilak, tutuak, obra-etxolak, uztaiak.

d.1. Onartzeko moduko kasuak

Salbuespenez, garraitzeko zatitzen diren salgaiak direnean, karga zatigarria onartuko da, baldin eta taldeko masa guztia 100 tonatik gorakoa ez bada.

Onartzen diren salbuespenak dira elementu bereziz osatutako taldea eta elementu desmuntagarriak.

- Elementu bereziz osatutako taldea: talde horretako elementuak izaera berekoak dira, helburu bera daukate eta neurri berdinak edo desberdinak izan ditzakete; eta taldeak bere elementuetako handienak gaingaitzen dituen neurriez gain beste neurriren bat gaingaitzen du edota IEOK karga garraiatuko duen talde horretarako (abian duen hurrenkeran) ezartzen duen gehieneko masa gaingaitzen du.

Horrelakoetan justifikatu beharko da garraitzeko seguruagoa dela elementu talde hori estibatzea, arauz ezarritakoa betetzea baino.

Adibidez: Hormigoizko zutabe aurrefabrikatuak, pala eolikoak kaiola.

- Elementu desmuntagarriak: hainbat pieza estuki lotuta dituen makinaz edo beste objektu mota batez osatutakoa eta horiek garraiatzeko banaketa hau egiten da: batetik, erdiko egitura banaezin bat, masa edota neurriak errespetatuta eraman ezin dena, eta bestetik, gainerako piezak. Era berean, pieza, elementu edo osagai horiek elementu desmuntagarritzat hartzen dira makina edo objektu berarenak badira, helmugan muntatuak izateko.

Kargaren zati diren osagaiak batera garraiatu ahal dira, baldin eta makina edo karga-gai berekoak badira.

Adibidez: itsasontziak; uzta-makina eta haren orrazia; zubi-garabia eta haren osagarriak.

Garabi jasotzailearen material osagarriak, garabi jasotzailearen elementu edo zatiak, esaterako, kontrapisuak, garabi-besoa, etab. "elementu desmuntagarrien" kasu berezitzat hartuko dira eta zirkulatzeko baldintza hauek bete behar ditu:

1. Material osagarria identifikatzea: garabi bakoitzaren material osagarria identifikatzeko moduan egongo da eta horrekin batera doan dokumentu batean zerrendatuta agertuko da. Dokumentu hori baimena eman duen lurralde-bulegoak sinatu eta zigilatu behar du.
2. Garraio osagarriaren ibilbidea: garraio osagarri horrek kasuan kasuko garabiari lagundu behar dio edo bestela, gidariak enpresak emandako dokumentu bat eraman behar du, bertan garabiaren ibilbidea zehaztuta: jatorria eta helmuga, eta ibilbide hori garabiaren material osagarria garraiatzen duen taldearen ibilbidearekin bat etorriko da, datak zehaztuta.
3. Garraiatutako elementuak/pisua. Bidaia bakoitzean eramaten diren elementuek ezin izango dute talderako baimendutako guztizko pisua gaingaitu, ezta ardatzeko pisua ere.
4. Material osagarriaren jabea: garraiatzen den material osagarria garabi bakar batena izango da, baimenaren titularraren jabetzakoa, eta zerbitzu bakoitzean ezin izango da beste garabi baten materiala eraman, ezta beste karga mota batekin nahastu ere. Bestela, salgai banaezina izateari utziko dio eta baimenak ez du baliorik izango.

5. Enpresa berekoak izatea: garraio hori banaezin moduan egiten duten ibilgailuek garabiaren enpresa berarenak izan behar dute, jabetza- edo errentamendu-erregimenean edo agintaritza eskudunak baimendutako beste edozein forma juridikotan; edo sozietateen bidez elkarri lotutako enpresenak izan behar dute, hau da, elkarrekin talde enpresarial bat osatzen dutenak. Garraioa garabiaren jabea den enpresak ez beste batek eginez gero, garraioaren dokumentazioan notario-deklarazioa agertu behar da azaltzeko garraiatzen duen enpresa garabiaren jabetza daukan taldeko enpresa bat dela.

Egiten den garraio bakoitzean 4. baldintza nahitaez bete behar bada ere, ZBO beraren babesean, garabi jasotzaile ugariren (kopuru mugagabea) material osagarria garraiatu daiteke.

d.2. Kargaren deskribapena

Eskabide-inprimakian, kargaren deskribapenak ahalik eta zehatzena izan behar du, izendapen generikoak alde batera utzita, esaterako "pieza metalikoa" edo horren antzekoak.

Hortaz, eskabidean karga deskribatzean edo izendatzean, hauek agertuko dira: etxebizitza-moduluak; garabiaren material osagarria; ibilgailu matxuratuak edo istripua izan dutenak; fresatzeko makina; hormigoizko zutabeak; brida edo pala eolikoa; prentsa; satinatzailea.

Aurreko zerrenda ez da zehatza edo baztertzatzailea, eta karga zehatz deskribatzeko adibideak ematen ditu.

Hala ere, kargaren deskribapena edo izendapena modu orokorrean eginez gero, ZBO-eskabidea izapidetzen den bitartean zuzentzeko aukera dago.

e. Ibilbidea

Eskatuko den ZBO motak eta bideko titularrek emandako txosten orokorren nondik norakoek baldintzatuko dute ibilbidearen identifikazioa edo ibilbidea definitzeko modua.

a) Ibilbide zehatzik gabe:

- ✓ ZBO orokorrak eta bereziak: "Euskadi-Euskadi"

GABAI eta obra eta zerbitzuetako IBetarako ZBO-eskabideei "Euskadi-Euskadi" ibilbidea onartzen zaie, baldin baimenaren xede den taldeak abian duen hurrenkeran dituen neurriek eta masek ez badute "atalase komun" izenez ezagutzen ditugun parametroak gainditzen. Parametro horiek EAEko bideetako titularren txosten orokor guztietan berdin agertzen dira, atalase moduan.

Luzera (L)	$\leq 35 \text{ m}$
Zabalera (a)	$\leq 4,5 \text{ m}$
Altuera (h)	$\leq 4,5 \text{ m}$
Masa (M)	$\leq 75 \text{ T}$

Ardatzeko masa (MARDATZ)	GABAIa ¹
	Obra eta zerbitzuetako IBak ≤7 ardatz: 12,6 t/ardatz

¹ GABAI taula gehieneko karga ardatzeko:

TIPO DE EJE		CARGA MÁXIMA PERMITIDA (t)		
EJE SIMPLE				
ESRS		10,0		
ESRG		11,5		
L2RS		15,5		
L2RG		16,5		
EJE TÁNDEM		SEPARACIÓN ENTRE EJES (m)		
		0,5 - 1,35	>1,35 - 1,50	>1,50 - 1,80
G2EESRS		9,0	10,0	10,5
G2EESRG		9,5	11,0	11,0
G2EL2RS		13,5	15,5	16,0
G2EL2RG		14,0	16,0	16,5
EJE TRÍDEM		SEPARACIÓN ENTRE EJES (m)		
		0,5 - 1,35	>1,35 - 1,50	>1,50 - 1,80
G3EESRS		7,5	9,5	10,0
G3EESRG		8,5	10,5	11,0
G3EL2RS		11,5	14,5	15,5
G3EL2RG		12,5	15,5	16,0
N EJES		SEPARACIÓN ENTRE EJES (m)		
		0,5 - 1,35	>1,35 - 1,50	>1,50 - 1,80
GNEESRS		7,5	9,5	10,0
GNEESRG		8,5	10,5	11,0
GNEL2RS		11,5	14,5	15,5
GNEL2RG		12,5	15,5	16,0

ES = Eje simple RS = Rueda simple G2E = Grupo de 2 ejes
L2 = Línea de dos ejes RG = Rueda gemela G3E = Grupo de 3 ejes
GNE = Grupo de N ejes

Ibilbiderik gabeko ZBOak emateko ez dago banakako txostena eskatu beharrik, txosten orokorren babespean daudelako eta beraz, ZBO horiek, indarrean dauden bitartean, txosten horien irismenaren barruko EAEko errepide-saretik zirkulatzeko baimena ematen dute, salbu eta pasabide-murrizketak edo pasabide-erreserbak dituzten errepide-puntu, -tarte edo errepide osoetatik. Horietatik zirkulatzeko galarazten duten pasabide-murrizketak eta horietatik zirkulatu ahal izateko hainbat baldintza ezartzen dituzten pasabide-erreserbak jartzen dira, errepide-puntu, -tarte edo errepide oso horien azpiegiturak baldintzatzen duelako baimendutako ibilgailuen neurriak eta masak horietatik igarotzea. Baimena horiekin lotuta dago eta beraz, baimena inplizituki baldintzatzen dute.

Bideko titularrek pasabide-murrizketak zein pasabide-erreserbak txosten orokorretan jakinarazten dituzte eta Trafiko Zuzendaritzaren webgunean daude kontsultagai: www.trafikoa.euskadi.eus [Izapideak/Baimenak/Ibilgailu bereziak].

OHARRA: Eskabideko taldeak abian duen hurrenkeran “atalase komunaren” barruko neurriak eta masak izan arren, interesdunak ibilbide zehatzeko ZBO bat eskatu ahal izango du. Horrelakoetan ZBOaren indarraldia urte betekoa izango da.

✓ ZBO orokorrak eta bereziak, “lurraldeko” ibilbidea dutenak

Obra eta zerbitzuetako IBei ematen zaizkie eta Arabako lurraldetik edo Bizkaikotik edo Gipuzkoatik zirkulatzeko baimena ematen dute.

Indarrean dauden bitartean, Arabako edo Bizkaiko edo Gipuzkoako edo bi lurraldetako errepide-sare osoetik zirkulatzeko baimena ematen dute, salbu eta pasabide-murrizketak edo pasabide-erreserbak dituzten errepide-puntu, -zati edo

errepide osoetatik. Horietatik zirkulatzea galarazten duten pasabide-murrizketak eta horietatik zirkulatu ahal izateko hainbat baldintza ezartzen dituzten pasabide-erreserbak jartzen dira, errepide-puntu, -zati edo errepide oso horien azpiegiturak baldintzatzen duelako baimendutako ibilgailuen neurriak eta masak horietatik igarotzea. Baimena horiekin lotuta dago eta beraz, baimena inplizituki baldintzatzen dute.

Bideko titularrek pasabide-murrizketak zein pasabide-erreserbak txosten orokorretan jakinarazten dituzte eta Trafiko Zuzendaritzaren webgunean daude kontsultagai: www.trafikoa.euskadi.eus [Izapideak/Baimenak/Ibilgailu bereziak]

“Lurralde bakoitzaren” parametroak taula honetan agertzen dira:

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Luzera (L)	≤ 35 m	≤ 40	≤ 40
Zabalera (a)	$\leq 4,5$	≤ 5	≤ 5
Altuera (h)	$\leq 4,5$	$\leq 4,5$	≤ 5
Masa (M)	≤ 75	≤ 100	≤ 75
MARDATZ	¹	$\leq 12,6$	$\leq 13^2$

¹ IBak 7 ardatz baino gehiago ez baditu edo masako 75 tona gainditzen ez baditu, ez da mugarik egongo.

² Gipuzkoan Zubietako pasabide-murrizketak (debekuak) bete behar dira.

a) Ibilbide zehatza daukatenak

ZBO salbuespenezkoen eta berezien eskabideetan (atalase komuna edo lurraldeko parametroak gainditzen dituzten neurriak dituztenean; eta interesdunak ibilbide zehatzeko ZBO bat eskatzen duenean) ibilbidea zehaztu behar da. Garraio pribatu partikularra denean ere ibilbidea zehaztu behar da, taldearen neurriak (abian duen hurrenkeran) edozein direla ere.

Proposatzen den ibilbideak jarraia izan behar du, ahalik eta zuzenena eta koherenteena eta, izapidetzen ari den bitartean, ibilbidea igaroko den bideko titularrei banakako txosten loteslea eskatuko zaie, baldin eta ibilgailuaren edo ibilgailu-taldearen (abian duen hurrenkeran) neurriek eta masek txosten orokorretako parametroren bat edo guztiak gainditzen badituzte.

Hala badagokio, ematen den ZBOak eskatutako ibilbidetik zirkulatzeko baimena ematen du, baina ahaztu gabe inplizituki ibilbide horretan eragina izan dezaketen pasabide-murrizketak (aginduak) eta pasabide-erreserbak (neurriak) kontuan hartu eta betetzeko betebeharra dagoela. Horiek Trafiko Zuzendaritzako webgunean daude kontsultagai: www.trafikoa.euskadi.eus [Izapideak/Baimenak/Garraio bereziak].

Hala ere, noiz edo noiz gerta daiteke baimendutako ibilbidea eskatutakoarekin bat ez etortzea, bideko titularrek eman beharreko txostenen menpe dagoelako. Hori gertatzen bada, baimena eman aurretik, interesdunari jakinarazi behar zaio eta interesdun horrek onartu behar du.

Ibilbidearen datuak eskabide-inprimakian agertu behar dira eta eskatzen diren datu guztiak bete behar dira.

Inprimakian bertan ibilbideak diseinatzeko tresna txertatuta badago ere, oraingoz ez da nahitaezkoa tresna hori erabiltzea; eta tresna hori erabili arren, berdin-berdin bete behar dira aurreko paragrafoan aipatutako datuak.

Ibilbideak diseinatzeko tresna guztiz operatibo dagoenean, ibilbidearen datuak beteko dira eskabide-inprimakian dagoen loturaren bidez ibilbidea hautatzeko tresnara sartuta (Beretrack klikatu)

Baimenako Erretiluak

es | eu Laguntza ? Sistemaren erretiluak eta nukleo Beretrack

Hasiera Baimenako Erretiluak Ibilgailuak kontsultatzea

AD51-J-02, AD51-J-02 dago: Hasiera / Erretiluak

Deskonektatu

Baimenako Erretiluak

XEHETASUNAK EZABATU ALTA ESKATU ALDAKETA ESKATU KOPIATU TXOSTENAK

Irteerak irizpideak:

Baimenaren zk. Espediente zk. Egoera Eskaera data-tik Eskaera data-ra Baimenaren data-tik Baimenaren data-ra

Garaio mota Talde-mota Baitotasun data-tik Data-ra

GARBITU IRAGAZI

Baimenaren zk.	Espediente zk.	ACC mota	Talde-mota	Eskaera data	Baimen data	tik	-ra	Egoera
BAI/48/2025/00204	BI/25/000018/0075808	Generikoa	Trakzio-kamioia + erdiatokia (edo matrikula baten modularra)	2025/03/06		2025/03/06	2029/03/06	Tramitatzen

Trakzio-kamioia + erdiatokia (edo matrikula baten modularra)

Tresnak, horretan beharrezko datuak bete ondoren, eskatuko den taldearen (abian duen hurrenkeran) ezaugarrien arabera ibilbide egokiena erakutsiko du. Dena den, eskatzaileak tresnak proposatzen duen ibilbidea alda dezake.

Ibilbidea hautatzeko tresna:

TRAMITAGUNE ES EU

IBILBIDEAREN HAUTAKETA

IBILBIDEA

Jatorria Helbidea

IBILGAILUAREN EZAUGARRIAK

Luzera: m

Zabalera: m

Altuera: m

Pisua: t

IBILBIDEA KALKULATU

II. ERANSKINA: ESKABIDEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

ZBO berri lortzeko edo indarrean dagoen ZBO bat aldatzeko eskaera-inprimaki berriek eskatzaileari, datuak bete ahala, bere eskabidearen tramitazioaren bideragarritasunari buruzko informazioa emango diote. Eskabideari baimena emateko beharrezkoak diren kontrol edo balidazio batzuk aplikatuko zaizkio eta horren ondorioa izango da informazio hori.

Eskaera-inprimakira sartzeko loturak hauek dira: www.trafikoa.euskadi.eus [Izapideak/Baimenak/Ibilgailu bereziak] edo www.euskadi.eus/egoitza_elektronikoa/.

I) Edonola ere, eskabidea behar bezala beteta aurkeztu behar da eta, horrekin batera, beste dokumentazio hauek ere bai:

❖ Identitatea:

Eskabide-inprimakian NAN kontsultatzeko baimena eman ezean edo dokumentu hori izan ezean, nahitaezkoa da identitatea akreditatzea.

❖ Ordezkaritza:

- ✓ [Ahalordetzeen erregistro elektronikoa](#) alta emanda badago, ez da dokumentu bat ere aurkeztu behar.

- o Interesdunen ordezkari gisa tramitazio elektronikoa egiteko erakunde gaitu moduan baimendutako pertsonak badira ([Ahalordetzeen erregistro elektronikoa/erakunde gaituak](#)), ordezkartzaren egiaztageria aurkeztu beharko dute, espediente baten tramitazioaren barruan hori aurkezteko eskatzen zaienean.

- ✓ [Ahalordetzeen erregistro elektronikoa](#) alta emanda ez badago, zuzenbidean onartutako bestelako bideen bitartez egiaztatu beharko du bere ordezkaritza (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5.4 art.).

II) Eskabidean beste ibilgailu bati alta emanez gero, ibilgailu bakoitzeko dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- ✓ GABAIak – ibilgailu motorduna: garraio-baimena edo dokumentu baliokidea (ibilgailuak REATen ez badaude aurkeztu beharrekoa)

- o Interesduna (eskatzailea) REATen izena emanda badago, garraio-enpresaren baimena aurkeztu beharko du baldin eta REATen ofizioz hori kontsultatzerik ez badago, bestela ez. Kontsulta hori egin ezin bada, jakinaraziko zaio.

- ✓ Obra edo zerbitzuetako IBa: zirkulazio-baimena (ibilgailuak Ibilgailuen Erregistroan inskribatuta ez badaude aurkeztu beharrekoa).

- ✓ IAT txartela edo ezaugarri teknikoaren egiaztageria (ibilgailu-mota edozein dela ere aurkeztu beharrekoa).

- o Atzerriko fitxa teknikoak badira eta horietan Ibilgailuen jakinarazpenean eskatzen diren datu guztiak agertzen ez badira, fitxa tekniko horien osagarri gisa, fabrikatzailearen ibilgailuaren ezaugarriei buruzko egiaztageria onartuko da. Egiaztageri hori aurkeztu ondoren, datu batzuk egiaztatu gabe geratuz gero,

ibilgailuaren titularren erantzukizunpeko adierazpena onartuko da, datuen egiazkotasunaren gainekoa.

- ✓ Ibilgailuaren azterketa teknikoaren egiaztagiria indarrean (Ibilgailuak Ibilgailuen Erregistroan inskribatuta ez badaude aurkeztu beharrekoa).
- ✓ Argazkiak: beharrezkoa bada, ibilgailua aztertzen den bitartean eskatu ahal izango da argazkiak aurkezteko.

II) Eskatzen denaren arabera, dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da, ZBO berri bat eskatzen bada:

❖ GABAIak:

Ibilgailuaren krokis fidagarria eta, hala badagokio, daraman kargarena ere bai, krokis horretan hauek adierazita: guztizko masa, ardatzeko masa, ardatzen arteko distantzia eta gehieneko neurriak, karga barne hartuta.

- Krokisa DIN A-4 tamainako orri batean aurkeztuko da eta hauek irudikatuko dira: ibilgailuaren krokisa, kargaren ingerada eta kokapena adierazita alboko altxaeran, oinplanoan eta atzeko altxaeran, ibilgailuaren neurri nagusiak behar bezala mugatuta, eta ardatz-arteak. Orobat irudikatu behar dira karga atzetik ateratzen den kasuak, galiboa egokiro zehaztu ahal izateko, ezinbestekoa baita eskatzen den zirkulaziorako. Alboko altxaeran, ardatz bakoitzean gezi bertikal bat irudikatuko da eta geziaren gainean ardatzak kargaturik duen masa adieraziko da. Horretaz gain, ardatzen tipologiari buruzko datuak zehaztuko dira.

❖ Matrikula bat baino gehiagoko atoi edo erdiatoi modularrak badira:

Dokumentazio teknikoa edo fabrikatzaileek emandako bateragarritasun-ziurtagiria.

❖ Urgentziaren egiaztagiria, urgentziazkoa dela egiaztatu behar denean.

❖ Ibilbide zehatzeko eskabidea:

Nahitaezkoa den kasuetan, ibilbidea diseinatzeko tresnaren bidez lortutako ibilbidearen datu geografikoak dituen fitxategia bidaliko da.

❖ Bideragarritasunari eta bide-segurtasunari buruzko azterlana, teknikari eskudun batek egindakoa eta dagokion elkargo profesionalak bisatuta, baldin eta GABAIa, abian duen hurrenkeran, egoera hauetako batean baldin badago:

- 1. Garraiatu behar duen karga elementu bereziz osatutako taldea da.

▪ Edukia:

Karga izaera eta helburu bereko hainbat elementuz osatuta badago eta, talde banaezinetarako ezarritako irizpideak gainditu arren, estibatze-arrazoiengatik aldi berean garraiatzea seguruagoa denean, interesdunak aurkeztu beharko du elkargokidea den teknikari eskudun batek bisatutako azterlan bat, hauek jasotzen dituen:

- Elementu guztiak aldi berean garraiatzeko beharraren justifikazioa.
- Karga guztia osatzen duten elementuen kopuru zehatza.
- Taldea, abian duen hurrenkeran, irudikatzen duen krokisa, hauek adierazita: taldearen guztizko masa eta neurriak eta masak ardatzeko.
- Kargaren elementu bakoitzaren kokapena eta taldearen grabitate-zentroaren kokapena.
- Karga estibatzearen baldintzak; euskarriak eta bermeak adierazita.

➤ 2. Garraiatu behar den karga elementu desmuntagarritz osatuta dago.

- Edukia:

Karga makina batez edo beste objektu mota batzuez eta horien piezaz osatuta badago, batera garraiatu ahal dira, baldin eta egitura edo pieza nagusia ezin bada masa edota neurriak errespetatuta eraman, eta karga osatzen duten elementu guztiak makina edo karga-gai berekoak badira.

Interesdunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, hauek jasotzen dituenak:

- Erdiko egitura bat eta haren pieza edo piezak direla eta horiek makina bera osatzeko muntatuko direla egiaztatzen duen agiri bat.
- Garraiatuko den elementu bakoitzaren neurriak eta masak.
- Taldea, abian duen hurrenkeran, irudikatzen duen krokisa, hauek adierazita: taldearen guztizko masa eta neurriak eta masak ardatzeko.
- Kargaren elementu bakoitzaren kokapena eta taldearen grabitate-zentroaren kokapena.
- Karga estibatzearen baldintzak; euskarriak eta bermeak adierazita.

➤ 3. Kargaren hegala karga bermatuta doan ibilgailuaren edo ibilgailuen atzetik 3 metro baino gehiago ateratzen da.

- Edukia:

Bideragarritasunari eta bide-segurtasuneko neurriei buruzko azterlanak hauek jaso behar ditu:

- Karga eskatzen den atzeko hegalaekin garraiatu beharraren justifikazioa.
- Taldea, abian duen hurrenkeran, irudikatzen duen krokisa, hauek adierazita: talde osoaren masa eta neurriak, ardatzeko masak, ardatz motak eta ardatzen arteko distantziak.
- Kargaren kokapena, grabitate-zentroaren kokapena, estibatzearen baldintzak eta euskarrien eta bermeen deskribapena.
- Ibilbidea mapan adierazten duen krokisa.

- Ibilbidearen deskribapena, bideen izen ofizialak adierazita. Bideak izenik ez badu, jatorria eta helmuga adieraziko dira, argi eta garbi zein den jakiteko moduan izendatuta.
 - Gatazka-gune nagusiak identifikatuta, eta gutxienez hauek adierazita: bideen arteko lotuneak, finka mugakideetarako sarbideak, ibilbidearen jatorria eta helmuga, bihurgune itxiak, estuguneak, galiboak eta ibilbidean egon daitezkeen gainerako sarbide-murrizketak.
 - Gatazka-guneen argazkiak, hauexek adierazita: gune horiek non dauden eta egin beharreko maniobrak.
 - Baimenaren titularrak bideko erabiltzaile guztiek seguru eta arin zirkula dezaten bermatzeko egindako ekintzen proposamena.
- *4. Taldeak abian daukan hurrenkeran 300 tonatik gorako gehieneko masa badauka.*

- Edukia:

Horrelakoetan, bideragarritasunari eta bide-segurtasuneko neurriei buruko azterlanak hauek jaso behar ditu:

- Errepidez garraiatu beharraren justifikazioa.
- Azterlanaren muina den taldearen krokisa eta deskribapena, taldeak abian duen hurrenkeran. Talde osoari buruz datu hauek adierazi behar dira: masa, neurriak eta ardatz-lerroen kopurua; beti leku berean doan taldeko elementu bakoitzari buruz, hauek: ibilgailu-mota, ardatza, ardatz-lerroa, esekidura-sistema, ardatzen arteko distantziak eta kargako hegala.
- Kargaren kokapena, grabitate-zentroaren kokapena eta estibatzearen baldintzak.
- Ibilbidea mapan adierazten duen krokisa, eta ibilbidearen idatzizko deskribapena, ibilbidea osatzen duten bideen izen ofizialak adierazita. Bideak izenik ez badu, erabiliko den bide-zatiaren hasiera-puntua eta amaiera-puntua adieraziko dira, argi eta garbi geratzeko zein bide-zati den.
- Ibilbidea osatzen duten bideen ezaugarriak: mota, errei kopurua, plataformaren eta erreien zabalera, bazterbideak, bermak, erdibitzaileak, trafikoaren dentsitatea eta zirkulazioaren arintasunean eta segurtasunean eragina izan dezakeen beste edozein parametro.
- Ibilbide grafikoa mapa batean, hauek adierazita:
 - Gatazka-gune nagusiak identifikatuta, eta gutxienez hauek adierazita: bideen arteko lotuneak, finka mugakideetarako sarbideak, bihurgune itxiak, estuguneak, galiboak, kontrako noranzkoan zirkulatzeko bide-zatiak eta ibilbidean egon daitezkeen gainerako pasabide-murrizketak.
 - Gatazka-guneen argazkiak, bertan zirkulazioaren segurtasuna bermatzeko egin behar diren maniobrak adierazita.
- Salgaiaren deskribapena, salgaiaren jabea eta igorlea adierazita.

- Bidaia-plana, hauek guztiak barne hartuta: zirkulazio-abiadura, gelditzeen programazioa, ordutegia eta garraioaren geroak.
- Bide-segurtasunerako konponbideen proposamena, baliabide materialak eta pertsonalak zehaztuta.

Edozein kasutan, atzerriko hizkuntza batean idatzitako dokumentuekin batera horien itzulpena ere aurkeztu behar da, eta itzulpena hauetako batek egina izan behar du: zinpeko itzultzaile-interpretari batek, Espainiak atzerrian daukan kontsulatuak edo dokumentua eman duen herriak Espainian daukan kontsulatuak.

➤ 5. Autoeskolarekin zirkulatzeko eskabidea

Dokumentu hori ZBO-eskabidearekin batera aurkeztuko da, baldin eta eskatutako ibilbidea autoeskolta erregimenean egiteko aldez aurretik baimenduta ez badago eta baimen hori lortu nahi bada.

- Edukia:

“Bideragarritasunari eta bide-segurtasunari buruzko azterlanak” eduki hauek izan behar ditu:

- Garraioa autoeskolta-baldintzetan egiteko beharra.
- Taldea, abian duen hurrenkeran, irudikatzen duen krokisa, hauek adierazita: taldearen masa osoa eta neurri guztiak, ardatzeko masak, ardatz motak eta ardatzen arteko distantziak.
- Kargaren kokapena, grabitate-zentroaren kokapena, estibatzearen baldintzak eta euskarrien eta bermeen deskribapena.
- Ibilbidea mapan adierazten duen krokisa.
- Ibilbidearen deskribapena, bideen izen ofizialak adierazita. Bideak izenik ez badu, jatorria eta helmuga adieraziko dira, argi eta garbi zein den jakiteko moduan izendatuta.
- Gatazka-gune nagusiak identifikatuta, eta gutxienez hauek adierazita: bideen arteko lotuneak, finka mugakideetarako sarbideak, bihurgune itxiak, estuguneak, galiboak, kontrako noranzkoan zirkulatzeko bide-zatiak eta ibilbidean egon daitezkeen gainerako pasabide-murrizketak.
- Bideen ezaugarrien deskribapena, hauek adierazita: tipologia, errei kopurua, neurriak, bazterbideak, berma (*bi eremu bereizten dituen langa goratua, erlaitza edo esparru laua*), erdibitzailea, bidearen erabilera, trafikoaren dentsitatea, etab.
- Gatazka-guneen argazkiak, bertan zirkulazioaren segurtasuna bermatzeko egin behar diren maniobrak adierazita.
- Bide-segurtasunaren arloko konponbideen proposamena, eta horretan zehaztu behar dira taldea zirkulatzen doan bitartean bide-segurtasuna bermatzen duten maniobrak eta baliabide materialak zein giza baliabideak.

III. ERANSKINA: ZBOAK EMATEKO PROZEDURA

1.- IBILGAILU BERRIEN EGIAZTAPENA

Eskabidean ibilgailuen jakinarazpenak aurkezten badira eta horiek ibilgailuen erroldan alda emanda ez badaude, ibilgailu horien jakinarazpenak aurkeztutako dokumentazioarekin konparatuko dira.

Jakinarazpena zuzena bada, ibilgailuari ibilgailuen Erroldan alta emango zaio eta jakinarazitako datuak ezin izango dira aldatu; salbu eta interesdunak edo haren ordezkariak aldaketaren bat egiten badu, eta, horrelakoetan, jakinarazi beharreko aldaketa horiek jasotzen dituen dokumentazioa ere aurkeztu beharko du.

Ibilgailuen jakinarazpenak edo aurkeztutako dokumentazioak baldintzetako bat betetzen ez badu edo akats edo gabeziaren bat badauka, interesdunari egin beharreko zuzenketa egin dezala eskatuko zaio.

2. ZBO-ESKABIDEAK IZAPIDETZEA

ZBO-eskabideak (berria edo indarrean dagoen bat aldatzea iraungi arteko aldirako) kanal elektronikoaren bidez aurkeztu behar dira eta interesdunek eskabidea egiteko egoitza elektronikoan (www.euskadi.eus/egoitza-eletronikoa) dagoen inprimakia erabili behar dute, bestela ez baita eskabidea onartuko.

Eskabidea aurkeztu ondoren, automatikoki emango zaio alta eta dagokion bulego izapidetzaileari esleituko zaio irizpide honen arabera:

- Ibilbide zehatzik gabekoak lurralde bulegoen artean banatuko dira.
- Ibilbide zehatzekoak ibilbidea hasten den edo igarotzen den lurraldeko bulegoari dagozkio.
- ZBO bat iraungi arteko aldirako aldatzeko eskabidea jatorrizko baimena eman zuen lurralde bulegoari dagokio.

3.- TASA ORDAINTZEA

Eskabide-motaren arabera, hau da, ZBO berria eskatzeko edo indarrean dagoen bat aldatzeko den, dagokion ordainketa-gutuna sortuko da. Eskabidea aurkeztu ondoren, eta izapidetzen hasi aurretik, automatikoki sortuko da ordainketa-gutun hori eta interesdunaren Nire Karpetara bidaliko da.

Tasa ordaindu dela, ofizioz edo justifikantea aurkeztu delako, egiaztatu ondoren, izapidetzen jarraituko da.

4.- HUTSAK ZUZENTZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 68.1. artikuluan xedatzen duenaren arabera, baimen-eskabideak beharrezko baldintzak betetzen ez baditu edo daturik falta bada, lurralde-bulego izapidetzaileak interesdunari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean falta

diren datuak aurkezteko edo osatzeko edo behar diren dokumentuak eranstea. Horrez gain, jakinaraziko zaio hala egiten ez badu eskaera atzera egin duela ulertuko dela, 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotako moduan ebazpena eman ondoren.

Zuzenketa jaso ostean, izapidetzen jarraituko da. Bestela, atzera egin duelako ebazpena emango da.

Eskatzaileari hutsak zuzentzeko eskaera bat baino gehiago bidali ahal zaizkio, baina ez aldi berean, bata bestaren ostean baizik.

5.- ESKABIDEA ALDATZEA

Interesdunak eskabidearen terminoak edo datuak aldatu ahal izango ditu eskabidea aurkeztean duenetik ZBOa jaulkitzen den arte, baldin eta txostena eskatu behar ez bada, eskatutakoa bideetako titularrek emandako txosten orokorren arabera onartuta baitago.

Txostena eskatzeko izapidea egin behar bada, interesdunak eskabidean aldaketak egin ahal izango ditu nahitaezko txostenak ematen diren arte. “Txostena eman dela” ulertuko da txostena espedientean agertzen denean; hau da, bideko titularrak bulego izapidetzaileari jakinarazi dionean eta espedienteari erantsi zaionean.

6.- BIDEETAKO TITULARREI TXOSTENAK ESKATZEA

ZBO-eskabideak “atalase komuna” izenekoak edo, hala badagokio, “lurraldeko parametroak” gainditzen ez baditu, ez da txostena eskatzeko izapidea egingo.

ZBO-eskabideak atalase horiek gainditzen baditu, eskatutako ibilbidea igarotzen den bideetako titularrei banakako txostena eskatuko zaie.

Dena den, ematen den baimena, inplizituki, bideko titularrek txosten orokorrean jakinarazitako pasabide-murrizketen eta pasabide-erreserben menpe egongo da. Horiek Trafiko Zuzendaritzaren webgunean daude kontsultagai: www.trafikoa.euskadi.eus.

Txostenak jaso eta horietan edozein ohar (fidantza, bideragarritasunari buruzko azterlana, ibilbide-aldaketa, pasabide-murrizketa edo beste edozein kontu) agertuz gero, eskatzaileari jakinaraziko zaio dagokiona zuzen dezan.

Eskatutako txosten guztiak jaso ostean, izapidea amaitutzat joko da.

7.- ESKOLTA-TASAREN ORDAINKETA-GUTUNA

Ibilbide zehatz bat eskatzen denean eta espedientea izapidetzen amaitu ondoren, zirkulazio-baldintzetan GABAI edo IBetarako eskolta poliziala sartu behar dela iritziz gero, eskolta horri dagokion ordainketa-gutuna sortuko da, gutxienez, baimenduko edo egingo diren bidaia guztien arteko batengatik. ZBOa emateko, hori aurretik ordaindu behar da.

Ordainketa-gutun hori emateko, laguntzei buruzko VI. eranskineko laguntza-irizpideei jarraituko zaie.

8.- ESPEDIENTEA EBAZTEA

Espedientea izapidetzen amaituta, lurralde-bulego izapidetzaileak arrazoietan oinarritutako ebazpena emango du, aurkeztutako eskabidea baimentzeko, ukatzeko edo eskatzaileak atzera egin duela edo uko egin diola deklaratzeko.

Espedientea, gehienez ere, hiru hilabeteko epean ebatzi behar da, eskabideari izapidetzeko eskumena daukan lurralde-bulegoan sarrera ematen zaion egunetik zenbatzen hasita, 39/2015 Legearen 21.3.b artikulua ezartzen duenaren arabera. Epea etengo da lege-testu horren 22. artikuluan aurreikusten diren legeko kausengatik.

Ebazteko epea igarota (hiru hilabete) ebazpena eman ez bada, administrazioaren isiltasun positiboa aplikatu (39/2015 Legearen 24.1 art.) eta eskabidea baietsitzat joko da.

Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, hilabeteko epean, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Trafikoko zuzendariari (39/2015 Legearen 121 eta 122 art.).

a) Ukapena

Noiz:

- Baimena emateko ezarrita dauden betekizunak betetzen ez direnean,
- Bideko titularren txostenak aurkakoak direnean,
- Hutsak zuzentzeko errekerimenduei behar bezala erantzun ez zaienean,
- Gerora sortutako arrazoiengatik espedientearekin jarraitzea ezinezkoa denean.

b) Atzera egitea edo uko egitea

Eskabidean atzera egin duela deklaratu da, interesdunak hala adierazten duenean, beti ere egintza hori jasota geratzen bada; edo interesdunak bere eskubideei uko egiten diela deklaratu ahal da (39/2015 Legearen 94. art.)

ZBOaren titullarrak bere eskubideei uko egiten badie, emandako ZBOaren indarraldia amaitu dela deklaratu da.

c) Baimena

Legezko betekizunak eta instrukzio honetan ezarritakoak betetzen badira, ZBOa emanda amaituko da prozedura. ZBO horrek GABAI- edo IB-motari dagozkion eta aplikagarri zaizkion zirkulazio-baldintzak ezarriko ditu; izan ere, baimenean ezartzen diren zirkulazio-baldintzak ZEOren arauak gailentzen zaizkie. Hori guztia, bideko titularrek txostenetan behar bezala arrazoiutako zirkulazio-murrizketak eta pasabide-erreserbak alde batera utzi gabe.

Zirkulazio-, abisu- eta laguntza-arauez gain, baimenaren balioa baldintzatzen duten ohar orokorrak ere jasoko dira.

d) Prozedura iraungitzea

Ebazpena emateko ezinbesteko izapideak interesdunari egotz dakiokeen arrazoiren bategatik gelditzen badira, bulego izapidetzaileak ohartaraziko dio prozedura iraungi egingo dela hiru hilabete igarotakoan. Epe hori igaro eta partikularrak ez baditu egin izapidetzen jarraitzeko egin beharrekoak, artxibatzea erabakiko da eta interesdunari jakinaraziko zaio (39/2015 Legearen 95. art.).

9.- JAKINARAZPENA

Interesdunari eta bere ordezkariari jakinarazpenak Egoitza elektronikoaren bidez (Nire Karpeta) egingo zaizkio, bai espedientearen ebazpenarena, baita beste edozein izapiderena ere.

10.- ZBOA EMATEKO PROZEDURA KOORDINATZEA

Trafiko Zuzendaritzak ezarriko ditu ZBOak emateko irizpideak, baita baimen horiek emateko prozeduraren eta horiekin lotutako gainerako tramiteen arteko koordinazio-irizpideak ere.

Ondorioz:

- ✓ Instrukzio hau eta bere eranskinak eguneratuko ditu agertzen diren kudeaketa-egoera berrietara egokitzeko. Era berean, espediente horien tramitazioari aplikagarri zaizkien irizpideak egokituko ditu.
- ✓ Txosten orokorrak eguneratuta izango ditu; eta horretarako, bidezko txostenak errepide arloko organo eskudunei eskatuko dizkie edo, hala badagokio, ibilbide-sareak ezarriko ditu.
- ✓ ZBOen tramitazioari laguntzen dioten prozedura informatikoak koordinatuko ditu.
- ✓ Prozedurak eguneratzeko eta koordinatzeko egin beharreko lan guztiak egingo ditu.

IV. ERANSKINA: ZBOA ALDATZEA

Indarrean dagoen ZBO bat aldatzeko eskabidearen bidez ibilgailuak kendu, ordeztu edo gehitu ahal izango dira. Azken bi kasu horietan, ibilgailu horiek ezin izango dute baimendutako taldearen konfigurazioa (abian duen hurrenkeran) aldatu. Era berean, baimenaren titularraren aldaketa ere eskatu ahal da, baldin eta horretarako behar diren betekizunak betetzen baditu. Hala ere, ezin da baimendutako ibilbidea edo taldeak abian duen hurrenkera aldatzeko eskatu.

ZBOak kudeatzeko tresna berria ekoizpenean jarri dela eta, tresna horren bidez eman diren baimenak aldatzeko eskabidea baino ez da egongo eskuragarri.

Eskabide-inprimakia eskuratzeko eta aurkezteko, instrukzio honetako IV. ataleko jarraibideei jarraitu behar zaie.

Indarrean dagoen ZBOa aldatu ahal da kasu hauetan:

- a) ZBOaren TITULARRA aldatzen bada kausa hauengatik:
 - o GABAI baterako emandako jatorrizko ZBOan sartuta dauden ibilgailu motordun guztiekin lotutako garraio-enpresako baimenaren titulartasunean aldaketaren bat dagoelako.
REATen egiaztatuko da aldaketa hori gertatu dela eta noiztik aurrera daukan indarra.
 - o IB baterako emandako ZBOan agertzen den ibilgailu motordunaren erregistro-titulartasuna aldatu delako.
Erregistro-aldaketa horrek erregelamenduz izapidetuta egon behar du ibilgailuen erregistroan eta ZBOaren titular berria izango denaren izenean agertu behar du ibilgailuak.
- b) ZBO baten barruko ibilgailuekin, hau egin ahal izango da:
 - o Ibilgailuak ordeztu edo kendu.
 - o Ibilgailuak gehitu, baina baimentzeko ezarrita dagoen ibilgailuen gehieneko kopurua gainditu gabe .
 - o Kasu batean zein bestean, ZBOan sartzeko eskatzen diren ibilgailuek ez dute taldearen konfigurazioa (abian duen hurrenkeran) aldatu behar eta dagoeneko baimenduta daudenen ezaugarri baliokideak izan behar dituzte (ardatz kopurua eta ardatzen ezaugarriak, TOGM, AETOGM, tara).

Indarrean dagoen ZBOa ezin izango da aldatu, interesdunak eskatuta, baimenaren funtsezko ezaugarriak aldatu behar badira. Horretarako, ZBO-eskabide berri bat aurkeztu beharko da. Funtsezko ezaugarriak dira hauei eragiten dietenak:

- a. Talde mota.
- b. Kargaren ezaugarriak, deskribapenaren edo identifikazioaren aldetik
- c. Masak, zirkulazio-abiadura edota taldearen neurriak (abian daukan hurrenkeran), hasieran baimendutakoak baino handiagoak edo txikiagoak direnean.
- d. Baimenaren indarraldia luzatzea, hasieran emandakoak zeukana baino handiagoa bada.
- e. Ibilbidea.
- f. Pasabide-murrizketak, -erreserbak edo zirkulazio-baldintzak.

Eskatzen den aldaketaren arabera, dagokion dokumentazio aurkeztu beharko da, instrukzio honetako II. eranskinean jasota dagoena.

Emanda dagoen baimen batean egindako aldaketek ez dute baimendutako taldearen baldintza teknikoetan inolako aldaketarik eragin behar.

Izapidetzean kontua hartu behar da sartu nahi den ibilgailuak baimenaren barruan dauden gainerakoekin zein garraiatzen den kargarekin bateragarria izan behar duela. Horrelakoetan, espediente ebatziko da eta jatorrizkoaren aginduak eta baldintzak mantenduko dira eta, hala badagokio, eguneratuko dira.

Emanda dagoen ZBOan sartu behar den/diren ibilgailuak/ek bateragarritasunaren baldintza bete ezean, baimena aldatzeko eskaera ukatuko da.

Aldatutako ZBOa indarrean egongo da jatorrizkoaren indarraldiaren amaiera-datara arte, hau da, aldatutakoa jaulkitzen denetik jatorrizko ZBOaren indarraldia amaitzen den arte.

ZBOa aldatzeko eskabidea jatorrizko baimena eman zuen lurralde-bulegoak izapidetuko du.

V. ERANSKINA: - ZBOAREKIN ZIRKULATZEKO BALDINTZAK

IB eta GABAletarako zirkulazio-arau eta -baldintza orokorrak ZEOren III. eranskinean jasota daude. Baldintza eta arau orokor horietaz gain, ZBOek, inguruabarrak kontuan hartuta, baldintza espezifiko batzuk ere ezar ditzakete; eta espezifikoek eta orokorren artean kontraesanik egonez gero, espezifikoek daukate lehentasuna.

Dena den, ematen den baimena, inplizituki, bideko titularrek txosten orokorrean jakinarazitako pasabide-murrizketen eta pasabide-erreserben menpe egongo da. Horiek Trafiko Zuzendaritzaren webgunean daude kontsultagai: www.trafikoa.euskadi.eus.

Emandako ZBOak taldeari baimena ematen dio abian duen hurrenkeran zirkulatzeko, baimen horretan ezarritako parametroak eta baldintzak betetzen baditu. Hala ere, irizpide batzuk ezartzen dira hauekin lotuta:

- o Kargatuta eta hutsik zirkulatzeko baimendutako neurrien eta masen barruan.

Bidaia-kopurua mugatuta ez daukan zirkulazio-baimen baten babesean, kargatuta eta hutsik zirkulatu ahal da. Beraz, interesdunak eskabidean jarri behar ditu taldeak, abian duen hurrenkeran, hutsik zirkulatzeko dauzkan neurriak.

Kargatuta zein hutsik zirkulatzeko, taldearen (abian daukan hurrenkeran) neurriek eta masek emandako ZBO-kategoriari dagozkion parametroen barruan egon behar dute, benetan baimendutako mugara arte. ZBOak zehaztuko du, hala badagokio, zein laguntza-baldintza dagozkion hutsik zirkulatzeko.

- o Zirkulazio-ordutegia

ZBOak ezarriko du zirkulatzeko ordu-tartea, parametro hauek kontuan hartuta:

ZBO generiko edo espezifiko bat daukaten GABAren zirkulazio-ordutegia egunekoa zein gauekoa izan daiteke (00:00etatik 23:59era).

Laguntza polizialarekin edo autoeskolta-erregimenean gauez zirkulatuko da, salbu eta ZBOak beste ordutegi bat ezartzen badu. Esaterako, laguntza polizialarekin egunez zirkulatuko da ibilbidea Arabatik baino igarotzen ez bada.

Halaber, gauez zirkulatuko da baldin eta taldeak, abian duen hurrenkeran, 40 metrotik gorako luzera ($L > 40$ m) edota 4,5 metrotik gorako zabalera ($z > 4,5$ m) badauka eta ibilbide osoa edo haren zati bat Instrukzio honen arabera autobideak edo autobideak ez diren errepideetatik egiten bada.

Hala ere, ZBOak beste zirkulazio-ordutegi bat ezarri ahal izango du edo ordu-tarte zehatz batzuetara muga dezake, zirkulazioan gehiegizko eragina daukaten egoeren kasuan. Egoera horiek daudela ulertuko da hurrengo egoeretakoa bi edo gehiago aldi berean gertatzen direnean. Dena den, beheko zerrenda ez da zerrenda itxia.

- Seinale bertikalak edo baliza-seinaleak kentzeko beharra.
- Ibilgailua igarotzeko trafikoa mozteko beharra.
- Ibilbidearen zatiren batean ohikoaren aurkako noranzkoan zirkulatzeko beharra.
- Baimendutako ibilbidean trafiko-intentsitate handia.
- zailtasun orografikoak.

IBek egunez zein gauez zirkulatu ahal izango dute, baldin eta gauez zirkulatzeko gaituta dauden ibilgailuetarako IEoren 16.artikuluak ezartzen dituen argien eta seinale optikoen dispositiboak badituzte.

Instrukzio honen ondorioetarako, eguneko ordutegia 06:00etatik 22:00etara artekoa izango da eta gauekoa 22:00etatik 06:00etara artekoa.

- o Aldi berean zirkulatzea.

ZBO berarekin, talde batek baino gehiagok, abian daukaten hurrenkeran, aldi berean zirkulatu ahal dute. Aldi berean zirkula dezaketen taldeak ZBO horren barruko ibilgailuez osatuta egongo dira.

- o ZBO desberdinak erabiltzea

Bidaian egingo den ibilbidea ZBO desberdinen babesean egon daiteke, baina beti bete behar dira bide-zati bakoitzean erabiliko den baimenaren baldintza guztiak (baimendutako parametroak, karga, zirkulazio-baldintzak, etab.)

- o Konboian zirkulatzea

GABAIek 2 edo 3 taldez (abian duten hurrenkeran) osatutako konboietan zirkulatu ahal izango dute, baldin eta talde guztiek beren ZBOetan ibilbide bera baimenduta badaukate eta ibilbide osoan zehar edo horren zati batean eskoltarekin zirkulatu behar badute. Patruila polizialaz gain, konboiari lagundu behar diote instrukzio honek jasotzen dituen parametroen arabera dagozkion ibilgailu-pilotuak baino bat gehiagok. (Ikusi VI. eranskineko D atala)

GABAIek 2 edo 3 taldez (abian duten hurrenkeran) osatutako konboietan autoeskolta-erregimenean zirkulatu ahal izango dute, baldin eta ibilbide bera badaukate eta, horrez gain, ibilbidea aurretik Trafiko Zuzendaritzak autoeskolta-erregimenean zirkulatzeko baimendu eta argitaratu dituenen artean badago.

- o Zirkulatzea fenomeno klimatologiko kaltegarriekin

Fenomeno klimatologiko kaltegarriak daudenean (elurra, izotza, lainoagatik ikuspen txarra, haize handia...) gerta daiteke agintaritza eskudunak ZBO horri eragingo dioten zirkulazio-murritzapenak ezartzea.

Oro har, ZBO baten babespeko zirkulazioa eten egin beharko da baldin eta zirkulaziorako arriskuak diren fenomeno atmosferikoak badaude edo aurrerantz zein atzerantz gutxienez 150 metrora arteko ikuspena ez badago (ZEOren III. eranskineko 1. ataleko 6. puntua).

VI. ERANSKINA: LAGUNTZA: Motak, parametroak, abisuak edo komunikazioak.

ZBOak, zirkulazio-baldintzen artean, laguntza-erregimena jaso dezake: ibilgailu pilotuaren laguntza eta, gainera, eskolta polizialarekin edo, hala badagokio, autoeskolta-erregimenean.

A)- Ibilgailu pilotuak lagunduta

GABAIek eta IBek ibilgailu pilotuaren bidez errepidean daudela adierazi behar dute, baldin eta eranskin honetako D) atalean agertzen direnetatik edozein parametro betetzen badute. Ibilgailu pilotuak lagunduta zirkulatzean, hurrengo baldintzak bete behar dira:

- o Ibilgailu pilotuaren dotazioa ibilgailuen igarotzea erregulatzeko

Ibilgailu pilotuko langileek paleta batean R-400 (derrigorrezko noranzkoa) eta R-2 (stop) seinale bertikalak txertatuta eraman behar dituzte, ibilgailuen zirkulazioa erregulatzeko, agintaritzako agenterik ez dagoenean edo haiei laguntzeko. Ikusgarritasun maila handiko arropa islatzaile homologatuak ere eraman behar dituzte.

Igarotzea erregulatzeko maniobrak, agintaritzako agenterik ez badago, gainerako erabiltzaileei ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko moduan eta ahalik eta denbora laburrenean egingo dira, Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorren 143. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- o Ibilgailu pilotuak eta eskolta polizialak lagunduta zirkulatzeko baldintzak

Konboiari edo, hala badagokio, talde indibidualari laguntzen dioten ibilgailu pilotuetako batek jarduneko agenteei laguntzeko lanak egin ditzake, haien jarraibideei kasu eginez eta haien agindupean.

Agenteen eta laguntzen doan ibilgailu pilotuaren arteko komunikazioa etengabea izango da, eta horretarako, gidariek eta agenteek adosten duten bitartekoa erabiliko dute.

- o Ibilgailu pilotuak lagunduta egiten diren bidaien jakinarazpena:

ZBOaren titularrak ibilgailu pilotuak lagunduta egin behar duen bidaia bakoitza jakinarazi behar du, bidaiaren hasierako ordua, data eta lekua adierazita, baita baimen-zenbakia ere.

Jakinarazpen hori egin dela ulertuko da geolokalizazioaren baldintza betetzen bada.

B)- Eskolta polizialak lagunduta

GABAIek eta IBek, ibilgailu pilotuaren bidez errepidean daudela adierazteaz gain, Ertzaintzak lagunduta zirkulatu behar dute, baldin eta eranskin honetako D) atalean agertzen diren parametroetako edozein betetzen badute.

Ezarritako parametroen, taldeak abian dituen ezaugarrien eta baimendutako ibilbidea osatzen duten bideen arteko konbinazioa zein den, eskolta-zerbitzua ibilbide osorako edo ibilbide-zatietarako ezar daiteke.

Dena den, bide-segurtasun arrazoiengatik edo garraiatu behar den kargagatik, ZBOak ezarritako neurriak baino txikiagoak dituzten GABAI edo IBei poliziak lagunduta zirkulatzeke baldintza ezarri ahal die.

o Laguntza bakoitzerako patruilen kopurua

Arau orokor gisa, IB edo GABAI bi patruilak lagunduko diete, salbu eta Arabako lurraldetik baino ez bazaie lagundu behar, horrelakoetan patruila bakar batek lagunduko die eta.

Edonola ere, patruila bakarreko edo biko laguntza-arau orokor horretatik kanpo geldituko dira egiteko planifikazio- eta logistika-neurri bereziak behar badituzten garraioak.

o Tasa Ertzaintzako agenteen laguntzagatik

Ertzaintzako agenteek lagunduta zirkulatzeak dagokion eskolta-tasa sortuko du. Tasa lurralde-bulego izapidetzaileak likidatuko du bidaiak egin aurretik, eta tasa hori ZBOaren titularrak, baimendu zaizkionetatik, eskatu dituen bidaiak-kopuruen (mugatuak ala mugagabeak) arabera izango da. Hala ere, baimena eman aurretik, baimenduko diren bidaien artetik gutxienez bati dagokion tasa likidatuko da.

Laguntza-zerbitzua ematen hasi aurretik, zerbitzu hori egingo duen Trafikoko Unitateak, aplikazioaren bidez edo bidaiak-planaren jakinarazpenarekin batera aurkeztutako ordainagiriaren bidez, tasa ordaindu dela egiaztatu beharko du.

[Tasa eta Prezio publikoen Legea](#)ren 99. artikulua arabera, bidaiak bakoitzeko tasa kalkulatzeko indarrean dagoen formula hau da:

$$\text{Zenbatekoa} = \text{laguntza-orduak}^1 \times \text{agente kopurua}^2 \times 33,90 \text{ euro}^3$$

¹ Laguntza-orduak = eskoltarekin egindako Km-ak / taldearen abiadura.

² Agente-kopurua 4 izango da (bi patruila) edo 2 (patruila bat, laguntza Araban bakarrik bada), salbu eta logistika berezia behar duen garraioa bada.

³ Tasa eta prezio publikoen Legearen arabera dagokion balioa. 2024. urterako ezarritako zenbatekoa 33,90 euro dira.

o Eskolta poliziala daramaten bidaien planaren jakinarazpena:

ZBOak baldintzen artean jartzen badu eskolta polizialak lagunduta zirkulatu behar dela, baimenaren titularrak Ertzaintzari bere bidaiak-plana jakinarazi behar dio bidaiak baino 7 egun lehenago (72 ordu lehenago gutxienez), eta egin daitekeen beste edozein komunikazio (adibidez, "Daten erreserbak" izenekoak) ez da loteslea izango. Jakinarazpen horretan adierazi beharko ditu bidaiaren hasiera-ordua, -lekua eta eguna, bidaiak egingo duen ibilgailuaren matrikula edo ibilgailu-taldearen matrikulak eta ZBOaren baimen-zenbakia.

Jakinarazpen hori, Ertzaintzak balidatzen badu, bidaiaren benetako plana izango da. Bestela, eta trafikoaren fluxuarekin edo bide-segurtasunarekin lotutako arrazoiengatik, Ertzaintzak titularrari dagozkion argibideak helaraziko dizkio, horiekin bat datorren proposamena egin dezan.

Bidaia-planari oniritzia emateko, dagokion trafiko-unitateak aldeztu aurretik egiaztatuko du polizia-laguntzagatiko tasa ordaindu dela. Ordainduta ez bazaude, ezingo duzue bidaia egin

“Ertzaintzarentzat egingo den bidaiaren planaren jakinarazpenean”, ZBOaren titularrak adierazi beharko du bidaiak 2ko edo 3ko konboian egin nahi dituela.

Jakinarazpena egiteko Trafiko Zuzendaritzaren www.trafikoa.euskadi.eus webgunean horretarako dagoen ereduak erabili behar da: “Ertzaintzarentzat egingo den bidaiaren planaren jakinarazpena”.

Jakinarazpen hori egiteak ez du inoiz salbuesten bidaia egitean geolokalizazioaren baldintza betetzetik.

C)- Autoeskolta

Kasu zehatz batzuetan, taldeak, abian duen hurrenkeran, autoeskolta-erregimenean zirkulatu ahal izango du, eskolta polizialaren ordezkotzat laguntza gisa, baldin eta Trafiko Zuzendaritzak horrelako laguntzak egiteko aldeztu aurretik onartu eta www.trafikoa.euskadi.eus webgunean argitaratu duen ibilbide batetik zirkulatuko bada.

Autoeskolta-erregimenean zirkulatzeko baimendutako ibilbide baten barruan egin daitezkeen ibilbide partzialak ere laguntza mota horrekin zirkulatzeko baimenduta daudela ulertuko da, baldin eta ibilbide partzial horien jatorria eta helmuga baimendutako ibilbidearen barruan badaude.

Autoeskolta-erregimenean zirkulatzeko ibilbide bat onartzeko eskaera interesdunek, Ertzaintzaren Trafikoko Unitateek edo Trafiko Zuzendaritzak berak egin dezakete. Trafiko Zuzendaritzak, eskatutako ibilbidearen bideragarritasuna aztertuta, baimendu eta argitaratu egingo du. Hasiera batean, ibilbide osoan zehar eskolta behar duten ibilbideak baino ez dira baimenduko.

Eskaera interesdunek egiten badute, ZBO-eskabidearekin batera “bideragarritasunari eta bide-segurtasunari buruzko azterlana” aurkeztu beharko dute eta horretan instrukzio honen II. eranskinean jasotako baldintzak eta edukiak agertu beharko dira.

Ibilbide bat autoeskolta-erregimenean zirkulatzeko baimendu eta argitaratu ondoren, ibilbide horretan laguntza mota hori izango da aplikagarria. Hala ere, Ertzaintzaren Trafikoko Unitateek bidaia egiten den bitartean zaintza- eta kontrol-lanak egiteko aukera daukate eta egokitzen jotzen dutenean laguntza emateko aukera ere bai.

o Autoeskoltarekin zirkulatzeko baldintzak:

- 1) Ertzaintzari bidaiaren plana jakinarazi.
- 2) Poliziak lagundu ordez, instrukzio honen arabera (eranskin honetako D atala ikusi) dagozkion ibilgailu pilotuak baino bat gehiagok lagunduko diote.
- 3) Eskoltako langileak interesdunaren kontura joango dira.
- 4) Zirkulazio-ordutegia poliziak lagunduta joango balitz egokituko litzaiokeen ordutegia da.

5) Taldeak autoeskolta-erregimenean zirkulatzean arau hauek bete behar ditu:

- Zirkulazio arrunta:

Taldeak, abian duen hurrenkeran, aurretik eta atzetik ibilgailu pilotu bana eramango ditu. Eskolta poliziala ordezkatzeko duen ibilgailu pilotua, autobide edo autobietatik zirkulatzean, amaieran joango da. Errepide arruntetatik zirkulatzean aurrean joango da.

Ibilgailu edo ibilgailu-talde bakoitzak bere aurretik doan ibilgailuarekin edo ibilgailu-taldearekin, gutxienez, 50 metroko tartea gordeko du. Kokapenari eta distantziari buruzko aurreikuspen horiek aldatu ahal izango dira biraketa-maniobrak egiteko.

- Biraketa-maniobrak maila bereko lotuneetan eta biribilguneetan:

Taldeak, abian duen hurrenkeran, eta haren kargaren hegala behar duten lekuan, biraketa-maniobra egiteko behar den denboran, ez da beste erabiltzailearik egongo, eta ibilgailu pilotuetako langileen ardura izango da hori horrela gertatzea.

Ibilgailu pilotuak aurreratu edo atzeratu egin daitezke, behar denaren arabera, maniobra hasten denetik amaitzen den arte kontrako noranzkoan doazen errei guztietan zein eraginda dauden ondoko erreietan zirkulazioa mozteko.

Eraginpeko eremu guztia libre dagoela bermatzeko moztu beharreko guneetan moztuko da zirkulazioa eta taldea, abian duen hurrenkeran, ez da biraketa-maniobra egiten hasiko, harik eta ibilgailu pilotuko langileek maniobrarekin beteko diren erreietan zirkulazioa moztuta dagoela egiaztatzen dioten arte.

- Ekipamendua eta jantziak:

Ibilgailu pilotuetako langile laguntzaileek egin beharreko zirkulazio mozketak egiteko gaituta egon behar dute (Zirkulazio Erregelamendu Orokorraren 143. art.). Ibilgailu pilotuek behar beste langile laguntzaile izango dituzte maniobrak segurtasunez egin ahal izateko eta pasabideak eta horietarako sarbideak seinaleztatu ahal izateko, zirkulazioa arrunta dagoenean zein maniobrak egitean.

Langile horiek guztiek ikusgarritasun handiko jantzi islatzaile homologatuak jantzi behar dituzte eta zirkulazioa erregulatzeko R-2 (stop) eta R-400 (derrigorrezko noranzkoa) seinaleak erabili behar dituzte.

Langile laguntzaileen, ibilgailu pilotuetan doazen eta taldearen (abian duen hurrenkeran) arteko ahozko komunikazioa etengabea izango da, pertsona horiek ibilgailuen barruan zein kanpoan egon. Horretarako, komunikazio hori baimenduko duten dispositibo egokiak izango dituzte eta behar beste dispositibo.

Trafikoa zaintzeko eta kontrolatzeko eskuduna den ertzainen bat lekuan balego, langile laguntzaileek eta ibilgailuetan zein taldean doazenean agenteek ezartzen dutena beteko dute.

Taldea abian duen hurrenkeran eta ibilgailu pilotuak seinaleztatuta joango dira, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean eta Zirkulazio Erregelamendu

Orokorrean ezartzen denaren arabera. Horrez gain, talde autoeskoltatuak V-23 bereizgarriak eramango ditu, bere ingerada mugatzeko; IEOK XI. eranskinean ezartzen duenaren arabera.

- Ertzaintzaren laguntza:

Hala ere, eskolta bere osotasunean ordezkari daiteke edo ezar daiteke, laguntza-modalitate honetarako baimendutako ibilbidean, kilometro-zati zehatzetan Ertzaintzak laguntza emango duela edo lagunduko diola.

- o Ertzaintzari autoeskoltadun bidaiaren plana jakinarazi.

ZBOak baimendutako ibilbidea autoeskolta-erregimenean zirkulatzeko baimenduta dagoen ibilbide batekin bat badator, ZBOaren titularrak, bidaia egin baino gutxienez 72 ordu lehenago, Ertzaintzari bidaiaren plana jakinarazi behar dio. Bidaia hasten deneko lurraldea, lekua, ordua eta eguna adierazi beharko ditu, baita bidaia egingo duen ibilgailuaren matrikula edo taldeko ibilgailuenak eta baimenaren zenbakia ere bai.

Jakinarazpen hori benetako bidaiaren plana izango da baldin eta Ertzaintzak balidatzen badu, eta horretarako, Ertzaintzak egiaztatuko du jakinarazitako ZBOaren ibilbidea autoeskolta-erregimenean zirkulatzeko baimenduta dagoen ibilbide batekin bat datorrela; eta jakinaraziko du non egingo dituen laguntzalanak, egokitzen joz gero. Halaber, eta trafikoaren fluxuarekin edo bide-segurtasunarekin lotutako arrazoiengatik, Trafikoko Ertzaintzak titularrari dagozkion argibideak helaraziko dizkio, horiekin bat datorren proposamena egin dezan.

“Ertzaintzarentzat bidaiaren planaren jakinarazpenean” ZBOaren titularrak adierazi beharko du bidaiak 2ko edo 3ko konbientan egingo dituen. Horrelakoetan, Ertzaintzak egiaztatuko du ibilbidea baimenduta dagoela autoeskolta-erregimenean egiteko zein 2ko edo 3ko konbientan.

Jakinarazpena egiteko Trafiko Zuzendaritzaren www.trafikoa.euskadi.eus webgunean horretarako dagoen eredia erabili behar da: “Ertzaintzarentzat bidaiaren planaren jakinarazpena”.

Jakinarazpen horrek ez du salbuesten bidaiaren hasieran bete behar den geolokalizazioaren baldintza betetzetik.

D) Laguntzarako parametroak

Jarraian datozen parametroak kontuan hartuta, kasu bakoitzari dagokion laguntza aplikatuko zaio. Baimena daukan talde bat, abian duen hurrenkeran, taulako barruti batean baino gehiagotan sartzen bada, laguntza gehien ezartzen duena aplikatuko da.

PARAMETROAK			BIDE MOTA ¹	IBILGAILU PILOTUA		ESKOLTA EDO AUTOESKOLTA ²
Luzera	Zabalera	Abiadura		Kop.	Kokapena	
		< 40 km/h	Autobidea/autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	2	aurrean / atzean	
20,55 < L ≤ 40 m			Autobidea/autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	1	aurrean	
	3 < z ≤ 4,5		Autobidea/autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	1	aurrean	
40 < L ≤ 55 m			Autobidea/autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	2	aurrean / atzean	
	4,5 < z ≤ 5		Autobidea/autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	1	TLUK zehazten du	ESKOLTA
			Gainerako bideak	2	aurrean / atzean	AUTOESKOLTA
z > 5 m			Autobidea/autobia	1	TLUK zehazten du	ESKOLTA
			Gainerako bideak	1	TLUK zehazten du	ESKOLTA
			Autobidea/autobia	2	atzean	AUTOESKOLTA
			Gainerako bideak	2	aurrean / atzean	AUTOESKOLTA
55 < L ≤ 65			Autobidea/autobia	1	atzean	
			Gainerako bideak	2	TLUK zehazten du	ESKOLTA
			Gainerako bideak	3	2 aurrean / 1 atzean	AUTOESKOLTA
L > 65 (edozein zabalera)			Autobidea/autobia	2	TLUK zehazten du	ESKOLTA
			Gainerako bideak	2	TLUK zehazten du	ESKOLTA
			Autobidea/autobia	3	1 aurrean / 2 atzean	AUTOESKOLTA
			Gainerako bideak	3	2 aurrean / 1 atzean	AUTOESKOLTA

¹ E atalean agertzen da zein bide hartzen den autobidetzat edo autobiatzat laguntza-mota edo laguntzaren ezaugarriak ezartzeko orduan.

² Ibilbidea autoeskoltarako baimenduta badago (kontsultatu hemen: www.trafikoa.euskadi.eus)

o Poliziak konboiari laguntzea

Eskolta poliziala eraman behar denean eta konboia 2 taldez (abian duten hurrenkeran) osatuta dagoenean, 3 ibilgailu pilotuk lagunduko diote konboiari.

Kasu horretan, ibilbidea autoeskolta-erregimenean zirkulatzeko baimenduta badago, polizia-ibilgailuaren ordezkari beste ibilgailu pilotu bat gehiago joango da (3IP + 1IP gehiago).

Eskolta poliziala eraman behar denean eta konboia 3 taldez (abian duten hurrenkeran) osatuta dagoenean, 4 ibilgailu pilotuk lagunduko diote konboiari.

Kasu horretan, ibilbidea autoeskolta-erregimenean zirkulatzeko baimenduta badago, polizia-ibilgailuaren ordezkari beste ibilgailu pilotu bat gehiago joango da (4IP + 1IP gehiago).

E) Laguntza ezartzeko errepide-motak

ZBOen barruko baldintzen artean zer laguntza-erregimen mota jarri erabakitzeko, autobidetzat(A) edo autobiatzat(AB) hartuko dira errepide hauek:

Nomenklatura	Mota ¹	Hasierako KPa	Amaierako KPa
A-1	AB	321,7	329,45
A-1	AB	336,15	391,69
N-102	AB	342,79	347,74
N-124	AB	28	31
N-240	AB	4,57	15,02
N-622	AB	3,97	23,32
N-624	AB	8,99	11
A-625	AB	372,49	369,85
AP-1	AS	Forondako biribilgunearen eta Etxabarri Ibiñako ordainlekuaren artean	
AP-1	AS	Etxabarri Ibiñako ordainlekuaren eta Gipuzkoako mugaren artean	
AP-1	AS	77,2	85,1
AP-68	AS	22,383	77,597
AP-8	AS	74,905	110,89
AP-8 (VSM)	AS	112,840	129,504
BI-10 (lehengo A-8a)	AS	9,89	139,2
AP-68	AS	0	22,383
N-633 (aireportua)	AB	9,31	13,95
BI-30 (lehengo N-637a)	AB	8	28,18
N-644 (porturako autobia)	AB	129,504	132,22
BI-20 (lehengo BI-631)	AB	0	1,415

		3,245	5,273
		11,82	19,99
BI-636 (Kadagua)	AB	4,17	22,984
BI-637 (Kukularra/Sopela)	AB	7,91	18,51
AP-1	AS	114,246	146,194
AP-1 (AP-8arekin bat)	AS	146,194	215,728
AP-8	AS	0	74,941
A-15	AS	139,76	156,673
A-15	ES	156,673	158,734
A-15	AS	158,734	169,314
N-I	EA	405,45	454,302
GI-11	AB	0	2,559
GI-20	EA	0	15,867
GI-40	EA	0	3,862
GI-41	AB	0	1,4
A-636	AB	0	22,772

¹AS autopista / AB autobia / EA errepide arrunta

VII. ERANSKINA.- GEOLOKALIZAZIOA

Emandako ZBO kategoria edozein dela ere, baimen guztietan zirkulazio-baldintza gisa agertuko da geolokalizazioaren edo jarraipenaren betebeharra. Betebehar hori betetzeko, egingo den bidaia bakoitzaz abisatzeko jakinarazpena zein bidaia horren hasieraren eta amaieraren jakinarazpena egin behar dira eta bidaian zehar geolokalizazioa bidali behar da.

Bidaiaz abisatzeko jakinarazpena eta bidaia-hasieraren jakinarazpena nahitaez egin behar dira dena delako taldeak abian duen hurrenkeran martxan jarri aurretik, eta jatorri batetik helmuga batera arte egin nahi den bidaia bakoitzean egin behar dira, nahiz eta erabiliko zen ZBOak ibilbide zehatzik ez izan.

Hala ere, jatorri eta helmuga bera duten hainbat bidaia aldi berean egin nahi badira (konboian zirkulatzea), betebehar hori lehen taldeak bete beharko du.

Dena den, jakinarazpen hori ez da inola ere ZBO baliodun baten baimenaren ordezkoa eta ez ditu ZBO horretan jasotako bete beharrekoak aldatzen.

Betebehar horrek ez du salbuesten Ertzaintzarengandik proposatutako bidaia-planaren bisatua lortzetik, bidaia eskolta polizialak lagunduta edo autoeskolta-erregimenean egin behar denean.

Geolokalizazioaren edo jarraipenaren bete beharraren baldintza bete ahal izateko, Trafiko Zuzendaritzak *Bere-track* sistema garatu du, ZBOaren babesean egiten diren bidaiak monitorizatu ahal izateko.

Geolokalizazioa edo jarraipena dela eta, sistema bi aplikazioz osatuta dago:

- Aurretiko abisurako web-aplikazioa, bidaiaren aurretiko abisua egiteko. Bidaia egingo duen taldea (abian duen hurrenkeran) osatzen duten ibilgailuak eta bidaiaren data eta hasiera-ordua jakinaraztean datza.

Bidaiaren aurretiko abisua ZBO zehatz baten babesean bidaia bat egin nahi dela erregistratzean datza.

Trafiko Zuzendaritzaren web-orrian aurretiko abisurako web-aplikaziorako lotura egongo da: <https://trafikoa.geozerbitzuak.com/beretrack/abisua>. Aplikazioan sartu ahal izateko, pasahitza eta "baimen-zenbakia" erabili behar dira, eta horiek bidaia babesten duen ZBOan jasota daude.

- Bidaien geolokalizaziorako app mugikorra, baimendutako zirkulazioa denbora errealean geolokalizatu ahal izateko. Bidaia egiten den bitartean, erabiltzaileak bidaiari hasiera eman beharko dio aplikazio mugikorraren bidez, eta aplikazio hori ibilgailuak denbora errealean duen kokapenari buruzko eguneratzeak bidaltzen ariko da.

Aurretiko abisua emanda, bidaiaren hasierarako eta amaierarako Trafiko Zuzendaritzak eskaintzen duen doako app-a erabiliko da, eta telefono mugikorrerako store-etan egongo da eskuragarri. Aurretiko abisua app mugikorraren bidez ere egin ahal izango da.